

Mendi martxea Igorren, BTT Artean eta Mendizale Eguna Ubiden

11. orrialdea

Gorbeia Suzien mendi lasterketea

Hilaren 18an izango dira Gorbeia Suzien Banco Mediolanum Sari Nagusia mendi lasterketea eta mendi martxea. Mundu mailako mendi lasterketari onenari egongo dira Zeanurin. Baina publiko orokorrak be topauko ditu intereseko ekintzak, berbaldiak, bideo emonaldiak eta beste gauza asko antolatu dauz-eta, Suzien Mendi Klubak "mendiaren inguruko jai" honetarako. 10. orrialdea



Bizkaiko Bertsolari Txapelketea martxan dago honezkero

13. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

216

2014ko urri bigarrenaren 15a
hamabostekaria
www.begitu.org

Lemoako Gaztetxeak hamabost urte

Urteurrena hilaren 24, 25 eta 26an
ospatuko dabe.

Hamabost urte beteten dira Harriketarrak Lemoako Gazte Asanbladak Lemoako karabi zaharreen lehenengo gaztetxea egin ebanetik. Gaztetxe ha erre egin zan handik gitxira, eta udalagaz akordio bat lortuta, eskola zaharretan sortu eben be-launaldi oso baten espazio auto-gestionau hau. Gaztetxeari Karabie izena mantentidu deutse.

Hamabost urte honek "bitzita zorionsuen fabrika" ospatuteko, egitarau oparoa prestatu dabe Harriketarrak. Ospakizuna barikuan hasiko da eta zapatu gauean 21:00etatik hasita eta goizalde-

ra arte kontzertuak egongo dira. Bertan, Doctor Deseo eta Eskean Kristö egongo dira beste batzuen artean.

Karabie gaztetxetik milaka lagun pasau dira bertako kontzertu, antzerki, berbaldi, batzar, burruka, afari, jai eta beste ekimenetan parte hartzean. Harriketarrak adierazo dabenez, "Karabie Gaztetxea topagune, eskola, sormen aserako lekua eta alkartasun gunea izan da urte honeetan guztietan. Baina ez hori bakarrik, gizarte justuago baten aldeko mila burrukaren espilu eta abots kritiko" be badira.

5. orrialdea



Gaztetxearen 10. urteurreneko irudia.

Argazkia: Gaztetxeako bloga.

AREATZA

Euskal Jaia, euskal jantzak



Musikea, jantzea eta kantu tradizionalak izango ditu ardatz aurtengo Areatzako Euskal Jaiak. Hilaren 25 eta 26an izango da, zapatu-domekaz, eta Arratia eta kanpoko jantza taldeak kalejirea eta jantza ikuskitzuna egingo dabe. Euskal musika tresnen feria, Kantuzaleen topaketea eta jantza alardea egingo dabe Areatzako Euskal Jaietan. Jantza alardeagaz beste sasoi bateko euskal jaiak ekarri gura dabe gogora.

Berrehun euskal abesti inguru daukan kantu liburu bat be argitaratu dau Udalak, eta egun horretan egongo da salgai plazan. 12. orrialdea

IGORRE

Agirre Lehendakaria kaleko zatiaren obrak zemendian hasiko dira

Igorre erdigunean dagoan kaleak 2014ko urte amaieran eta 2015eko hasieran itxura aldaketa nabarmena izango dau. Udalak Agirre Lehendakaria kalea barrizatzeko asmoa azaldu eban urri bigarrenaren 6ko Osoko Batzarrean. Lanok zatika egingo dira; izan be, Udalak bere gain hartu daiekizan gastuetan bakarrik sartuko dala adierazo dabe Igorreko Udaletik. 5. orrialdea

ARRATIA

BEGITUREN Lehiaketako argazki irabazleak eta finalistak ikusgai

Areatzako Miren Urutxurtuk bialdutako "Castellet" izeneko argazkiak irabazi dau aurtengo Oporretako Argazki Lehiaketea. Bigarren egin dauana be Areatzakoa da, Kattalin Astondoa, hain zuzen be. "Oinatzak Urdaibain" lanagaitik lortu dau bigarren saria. Aurten, 55 erretratu egon dira lehian, 25 argazkilarik bialduta.

Argazkiok erdiko orrialdeetan ikusi daitezke. 8. eta 9. orrialdeak

ezkur oinetakoak

marka honeek daukaguz

Clarks EL NATURA LISTA Timberland art. FLY LONDON

Lehendakari Agirre 14 · Igorre · 94 673 62 24

ARRATIA ZURI-BALTZEAN

ZERGAK XVIII. GIZALDIAN (II)

Infanzioen sarreren artean urteko kontuetan 1700 eta 1784 bitartean, hori da mota horretako erregistro bakarra. Gainontzeko urteetan, Zeberion, ez ziran izan familia nekazariak zuzeneko zergak ordaindu ebezanak, herri administrazioa baino, bertan bizi ziran guztien izenean. Gehienetan, herri-basoetako egurra saltzeatik

lortutako diru sarrerak zerga-betebeharrak ordaintzeko izaten ziran. Beraz, zama fiskalaren gaineko grafikoak (aurreko alean argitaratu) erakusten dau zenbat erreal eskatzen eutsiezan erakundeak herri administrazioari eta zenbat erreal egokozan familia bakotxari. Baina grafikoak ez dau erakusten zenbat erreal pagau ebazan benetan familia bakotxak. Benetako zama fiskala zeharkako zergetan familia infanzoi bakotxeko 85 urtetako epean 1700dik 1784ra

arte, 8 erreal izan ziran. Hau da, Zeberioko biztanleen belaunaldi osoak ez eben inoz zuzeneko zergarik ordaindu, herri administrazioak ordaindu eban-eta haren izenean. Egoera hau gaur egun, apur bat surrealista iruditzen jaku. Zelan imaginatu zerga bako sistema ekonomiko bat? Faktore bik ebatzi eben panorama fiskal harrigarri hau. Alde batetik, ondare handia eukan udal batek bakarrik egin eikion aurrera holongo gastuari,

eta Zeberioaren kasuan ondarea herri-lurra zan. Han haretza hazten zan, laborantza bakar moduan, ikatz begetala egiteko eta bailaran egozan burdinolak kantidade handietan behar eben ikatza. Holan, baso ekonomiak diru sarrera handiak ekarten ebazan udaleko dirukutxetara, egoera ekonomikoak itxi bitartean. Beste alde batetik, ezin dogu

ahaztu zergetako dirua biltzeako arazorik handiena zala baserritarak ez ebela eukiten sarrerarik dirutan. Horregatik egiten jaku gaur egun hain harrigarria herri administrazioaren onaldi egoerea, jente gehienaren bizi-baldintzak hain apalak ziran sasoi baten. Hain apalak ze zergak be ezin izango ebezan ordaindu.

Jürgen Lange

TELEFONO INTERESGARRIAK

<p>Larrialdiak Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00 S.O.S. DEIAK 112</p> <p>Guardiako Farmaziak 09:00etatik 22:00etara Urri bigarrenaren 13tik 19ra Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15 Tel.: 94 673 93 22</p> <p>22:00etatik 09:00etara Sarasketa. Amorebieta-Etxano.</p> <p>Urri bigarrenaren 20tik 26ra Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1 Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908</p> <p>22:00etatik 09:00etara Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.</p> <p>Urri bi. 27tik zemendiaren 2ra Goikoetxea. Dima. Ugarana 33 Tel.: 94 673 70 54</p> <p>22:00etatik 09:00etara Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano. Zeberioak ez dau guardiarik egiten.</p> <p>Urte osoan 22:00etatik 09:00etara Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.</p> <p>Medikuak Arantzazu: 94 631 56 89 Artea: 94 673 92 11 Areatza: 94 631 71 52 Bedia: 94 631 34 13</p>	<p>Dima: 94 631 56 30 Igorre: 94 600 74 63 Lemoa: 94 631 31 16 Ubide: 945 45 03 61 Zeanuri: 94 673 91 49 Zeberio: 94 648 20 79</p> <p>Udaletxeak Arantzazu: 94 631 56 89 Artea: 94 673 92 05 Areatza: 94 673 90 10 Bedia: 94 631 42 00 Dima: 94 631 57 25 Igorre: 94 631 53 84 Lemoa: 94 631 30 05 Ubide: 945 45 03 22 Zeanuri: 94 673 91 46 Zeberio: 94 648 10 79</p> <p>Udalen Mankomunitatea 94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15 Gorbeialde 94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01 Parketxea 94 673 92 79 Igorreko Kultur Etxea 94 673 62 51 Gorbeialde Irratia 94 631 52 90 Trenak Euskotren 902 543 210</p>	<p>Bizkaibus* 902 222 265 Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era. Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era. Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.</p> <p>Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.</p> <p>Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino. Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.</p> <p>Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo. Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.</p> <p>Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.</p>	<p>Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.</p> <p>Otxandiotik urteerak: Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro. Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.</p> <p>Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro. Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.</p> <p>Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik) Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik) Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Artea-Bilbo Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00. Domeketan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Bilbo-Artea Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45. Zapatuetan ez dago 05:45eko.</p>	<p>Domeketan ez dago zerbitzurik.</p> <p>Zeberio-Bilbo Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45. Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.</p> <p>Bilbo-Zeberio Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean. Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.</p> <p>La Union* 94 427 11 11 Bilbo-Gasteiz Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.</p> <p>Gasteiz-Bilbo Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean. Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.</p>
---	--	---	---	---



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.
Telefonoa: 94 631 73 14.
Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com
Webgunea: www.begitu.org
Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.
Erredakzio burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.
Erredakzio taldea: Ainhoa Duñabeitia, Irati Urien eta Jon Urutxurtu.
Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.
Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.
Banaketea: Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).
Tiradea: 6.800 ale.
Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.800 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa

EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Vicesecretaría de Política Lingüística

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Eskerrik asko

Oskar Garro Lagun Taldeak eskerrak emon gura deutsez urri bigarrenaren 5ean Igorreko II. Duatloi Herrikoira etorri ziranai. Egun oso polita pasa genduan umeak eta nagusiak. Parte hartze handia egon zan, 80 bat ume eta 28 nagusi.

Irabazleak danok izan ginan eta ia datorren urtean be prestatu daikegun beste edizino bat. Eskerrik asko baita babesle guztiai be, eta batez be nire lagunai ze eurak barik ezin izango neban duatloia antolatu.

OSKAR GARRO LAGUN TALDEA

ERETXIA

Ankur

Bagilan Bombay-ra joan ginan Santa Anaren Karidako ahiztak eta batez be Primi Velak egiten dauan beharra ezetuteko. Primi Vela kongregazino horren arduraduna da Indian.

Egin euskuen harrera ona eskertzeko, eta euren proiektuen partaide garanez orain, eskatu euskuena betetea gura dogu: etorri, ikusi eta kontau. Eta atzenengo hau da falta jakuna.

Ankur Manos Unidas-en laguntzeagaz egindako zentru bat da. Bertan, kaleko 200 neska txiki baino gehiago bizi dira. Uriko txaboletatik etorri dira batzuk, beste batzuk poliziak ekarri ditu urian noraezean edo sano baldintza txarretan beharretan topau ditualako, eta beste batzuk gurasoak eurak ekarten ditue ezin dabezalako mantenidu eta mojak jagon eta hazi dagiezan.

Zentroan neskatxiak familia giroan bizi dira, giro atsegin eta babestuan eta han ikasi egiten dabe eta esperantzaz betetako etorkizunerako prestatzen dira.

Baina hau ez da Ankur-ek egiten dauan lan bakarra. Egunero, euren zentruan euki ezin dabezan beste 100 umeri emoten deutsee jaten. Ezin ditue etxean euki, baina oinarritzko eta ondo elikatzen dauan jatekoa emoten deutsee.

Hilean bitan, oinarritzko jatekoak emoten deutsee 300 familiari, Vita Mundis-ek diruz lagundutako proiektu bateri esker.

Eta 400 umeri zerealak, esnea, arrautzak eta abar emoten deutsee eskolan izena emoteagaitik (elikadura eskolaratzeagai-



EDURNE AGIRREZABALA ETA ALFONSO MOLINA

Ankur-eko kolaboratzaileak

tik proiektua). Proiektu honetan Anesvad-ek hartuten dau parte.

Beste proiektu bat Bilkush zentruarena da. Bere oinarria Ankur zentruaren antzekoa da eta edade bardineko umeak bizi dira bertan, baina mutilentzat da hau.

Lekuko izateaz eta proiektuetan laguntzeaz gainera, anbulantzia be ibili ginan (Aasara-Barcelonak emondakoa). Anbulantzia honek lau txabola eremuren arretea hartzean dau, guztira 20.000 personaren ardurea.

Ankur-ek bereganatu egiten zaitu, norberaren baloreak indartu egiten dira eta lehenetsunak agertu. Bertan bizi diranak emoten daben gizatasun, ontasun, bake, poztasun eta zoriontasun ikasbideak, norbere buruari itaun arazo deutso bideko zein puntutan desbideratu zan, identifiketan dauan horretatik hainbeste urrunduteko.

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Azuri



Ardiaren kume jaiobarria da azuria (asúrie, agoskatuta), amearen esnea hartzean dauan denporea bete arte, hau da, urtea egin arte. Apur bat handitxoagoa izaten danean (9-12 hilabete), azuriari bildotsa deituten jako. Azuri emea da, eta azuri-aharito edo bildots-ahari arra. Jatekoa bada, Pazko egunean edo beste jai batean, artxoas esaten jako. Gaur egun, holango berbak gero eta gitxiago entzuten doguz, eta arkume berba generikoagoaren erabilera nagusitu da.

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...
...BAGARA ETA IZANGO GARA

Euzko Lehenetako Batzuen Batzordea
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

LUMATUTEN



IGOR ESTANKONA

Arratiko gizona eta Aresti

Uri lehenengoan *Gabrielen Lekua* sentikariaren urtebeteko ibilbidea amaitu zan, Kafe Antzokian, emonaldia bikotxean: bata euskera ikasleentzat, bestea publiko osoarentzat. Aresti pozik joango zan lehenengora. Ikuskizunak Bilbo, Baiona, Arantzazu, atzerria, Ea... euki ditu erreferente, eta lekuotan kokatuak poetaren bizitzako zenbait zedarrri: haurtzaroa, euskerea ikasteko ebatzia hartu ebanekoa, justizia sozialagazko kezka, obra literarioa, euskera batuaren sorrerea...

Haizeak eroan dauana gozateko modua badago, ostera, diska-liburuan. Sentikarian esku hartu daben eta ez daben egileen testuak datoz: Amaia Lasa, Andoni Egaña, Hedoi Etxarte, Luigi Anselmi, Oier Guillan, Paddy Rekalderenak. Alain Urrutiak sortu eta moldatutako irudiak ilustretan da-

bez orrialdeok, eta diskoan Rafa Ruedaren abestiak, Guillanen deklamazioak eta Andoni Egaña eta Arkaitz Estiballesen bertsoak dagoz, besteak beste.

Aresti okertu egin zan, horratio, esan ebanean "herri honek ez nau ni kantore, madarikatu nau". Izan be, maite dogu bere bertsoak traketsa, bere luma artifiziala, bere Euskal Herri barria. Nahiz eta arratiarrok izan garan galaiz jantzitako arlote bere imaginarioan, maite dogu Aresti eta maite doguz bilbotarrak, Pesako autobusean datozenean "mendira", esaten deuskuenean "txikerra baina gogorra". Akordatu naz zelan igon zan Igor Urien Arratia Ikastolako gabonetako jaialdian eskenatokira, kartoizko tranbia baten, ago batez kantetan genduan bitartean "Arratiko gizona Bilbora doa maiz/ Lemoako tranbian eta beti garaiz". Bizkaiko touareg jakintsua bere buruari barrez izan zan ha. Aresti: txarto tratau gaituzu, baina barkatzen deutsugu.

ZERTZEAN



IBON IZA

Gaia jarrita: "Bizkaiko Txapelketea"

5

Txapelketea askontzat aukera bakarra gau bateko argia uneko izarra pozik nengoke pozik dot esan beharra bertsolaritza balitz garaile bakarra.

1

Kantatu gura dautset txapelketeari bertsolarien txori entzuleen kabi dana prest daukagunez jostorratza, hari Bizkaiko adabakia has bedi kantari.

3

Txapelketea hasi da begin begun began domeka ixagaz daukagu agendan bakarrea, kartzelan hasierak, teman Galdakan hasten dana amaitu Arenan.

6

Dagoenean bonbon ez danean egon entzun gureko geunkez hamaika bertso on ahal dan ondoen egin ostean hor konpon eguzkia urtengo da eta show must go on!!

2

Berba dogu estua berba da zabala gure herri maitea busti dagiala jarri daiogun danok kolorez txatala mundura zabaltzeko Bizkaiko oihala.

4

Kepa Intxaustiren garaiak presente Arriagan kantari gazte baina tente lar eskatzea ez bada orain derrepente Arenan arratiar bat ikusi nahi geunke.


7

Lehen pausoa emonda hartu abiada josi dagigun danok ametsez izara bizirik daukagunez bertsoen zirrara igual egunen baten itzuliko gara.

BEGI TXINDORRA

Bilboko Guggenheim museoaren parean, Louise Bourgeois frantziarraren *Maman* izeneko eskultura dago. Aramu erraldoi bat da. Bederatzi metroko aramuari esaten deutso "ama" eskultoreak. Bildurra emoten dau, alde batetik; baina hauskorra be bada bere hanka meheen gainean... Susmoa euki dot beti Louise eta bere amaren arteko hartu-emonak ez zirala onak izango, amatasuna bape samurra ez dan mamorro horri lotzeako.

Artean, artilez egindako aramu sarea egin dau baten batek. Artilezko artelan honek ez dakar gogora aramu erraldoi batek egindako sarea, eta ez dau eragiten ezelango higuin, bildur edo fobiarik. Gozotasun eta samurtasun antzeko bat dario honeri. Baina sarea da: aramuak harrapakinak harrapatuteko erabilten daben sarea. Hau be amatasunaren sinboloa ete? Edo amaren maitasunarena, akaso?



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarrabia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bilakia
T. 94 631 50 39
Kalejatu Zerbaita 100
R.P.S. 21/06

FISIOTERAPIA Grupo SasoiBide
Balneario Areatza
Tania Fernandez Santiago
COL. 1718
www.gruposasoiBide.com Tel: 94 657 54 50

IGORRE

Agirre Lehendakaria kaleko lanak zemendian hasiko dira



Beharrak amaitzerakoan izango dauan itxurea.

Erredakzinoa

Agirre Lehendakaria kaleak 2014ko urte amaieran eta 2015eko hasieran itxura aldaketa izango dau. Udalak kale hau barrizatzeke asmoa azaldu eban urriaren 6ko osoko batzarrean eta lanak ahalik eta arinen hasteko kontratazioak dekretuz kaleratuko dira. Lanok Foru Aldundiak ez dituala diruz lagunduko jakinarazo dau udal gobernuak, Ingurugiro Saileko 10.000 euro baino ez. Hori dala eta, lanok zatika egingo dira, Udalak zorra gitxitzen jarraitu gura dau eta.

Beinat Anzola Igorreko alkateak prensa ohar batez azaldu dauanaren arabera, urigintza batzordeetan hiru udal taldeak euren eretxia emoteko aukerea eta denporea izan dabe 105 ize naz ezetuten dan guneari buruz. Izan be egitasmoa ez da barria. Proiektuaren oinarria aurreko legegintzaldian hiru udal taldeak onartutakoa da.

105 etxebizitzaren ingurua beharizan handiko gunea da. Ez dagoz irisgarritasunaren aldetik gitxiengoak bermatuta. Arrisku egoerak gertatzen dira autoen eta oinezkoen eremuak zehaztu barik dagozalako. Herriko bi gunepopulatuena dira Olabarri eta erdigunea, eta 105 gunea oinezko gehien igarobidea da. Alkatearen berbetan "ezin da gehiago etxon, horregatik lan honeen kontratazioa dekretuz kaleratzea ebatzi da".

Bizkaiko Foru Aldundiak laguntasun gitxi

Udal gobernutik Bizkaiko Foru Aldundiaren inbabilismoa be salatu ten dabe. "Araudia gure alde dagoala ulertu arren Bizkaiko Foru Aldundiak ez dauala diruz lagunduko adierazo deusku". Ingurugiro sailetik 10.000 euro inguruko diru laguntza lortu dabe.

Egoera ekonomikoa kontutan hartuta, Udalak argi dauka bere gain hartu daikezan gastuetan bakarrik sartuko dala eta daukan zorra gitxitzen jarraituko dauala. Holan, egindako kalkuluen arabera, 110.000 eta 210.000 eurotan egin daitekezan zatiak aterako dira, eta autoen aparkalekuentzat alternatibak sortzeako be beharrean dabiz.

Lehentasanak kontuan euki ahal izateko, bertako biztanleen gura eta ardurak hurretik jasoteko batzar berezia egin zan, auzotarrakaz lekuan bertan, bertako merkatariai zuzendutako batzar berezia egin zan eta aurreproiektu fasean, auzoan bertan panel informatiboa kokatu zan proiektuaren arrazoi eta emoitak azaldu teko. Gainera, udaleko hiru taldeen artean, aparkalekuari asfalto, argiztapena eta autoak bakarrik erabilteko mugak ipiniko jakoz. "Igorreko Herriak eskertuko daualakoan eta oraindino beste fase askotan adostasuna lortzeako aukerak dagozala ikusita, hurrengoan be ahaleginik ez da faltauko" amaitu dau alkateak.

LEMOA

Karabie Gaztetxean 15. urteurreneko jaia

Hamabost urte beteten dira Harriketarrak Lemoako Gazte Asanbladeak, karabi zaharreen lehenengo gaztetxea egin ebenetik. Urte muga hau hilaren 24, 25 eta 26an ospatuko dabe.

rangeak poteorako musikea ipiniko dau afaldu aurretik. Ondoren herri afaria eta ekitalditxoak 15 urte honetarako gogora ekarteko. Stankeink Band, taldearen kontzertua egongo da gero. Stankeink Band, Karabie Gaztetxeako rock taldea da.

Doctor Deseo Gaztetxean

Zapatu arrastiko ekitaldiak kalejireagaz hasiko dira. 18:30ean Broken Bross Brass Band Iruñeko taldeak New Orleans-eko musikea ipiniko dau Lemoako kaleetan. Eta 21:00etatik aurrera eta goizaldera arte kontzertuak. Musika estilo ugari eta jatorri desbardinatuko bandak joko dabe Gaztetxeak ipinitako karpan. Doctor Deseo, Willis Drummond, Eskean Kristö eta Izerdi Gorria taldeak entzuteko eta euren musikea jantzatzeko aukerea egongo da hilaren 25ean gaubez.

Ezer ez galtzeako, karpan bertan bokadillo edo errazioak afaldu daitezke.

Domekan danon artean batu

Amaituteko, danon artean batuko dabe karpea eta gainontzeako, auzolanean. Beharra arintzeko musikea ipiniko dau DJ batek eta zer jana be eukiko dabe parte hartzean dabenak.

"Orain dala hamabost urte Karabi zaharreen hasi ginan, basoan. Herrira jeitsi eta "herri bat, gaztetxe bat" oihukatu genduan. Ezinezko irudiana errealdade bihurtu dogu, irudimena dalako gure amarik onena eta autogestinoa bide bakarra. Urteak joan dira eta hemen jarraituten dogu harriketarrok, karabian. Denpora honetan guttitan, milaka amets bete doguz, baina danak norabide bakarrean. Eta hemen gagoz 15 urtez bizitza zorionsuen fabrika beharrean, maite dogun hori zaintzen" di-noe Harriketarrak Gazte Asanbladekoak.



Erredakzinoa

Horretarako kontzertuak izango dabe protagonismo nagusia, baina herri afaria edo auzolana be ospakizun ekitaldien artean dagoz. Ekitaldiok Gaztetxe azpian ipiniko daben karpa baten izango

dira. Urteurreneko abestia, Eskean Kristö Arratiako taldeak egin dau eta <https://www.youtube.com/watch?v=jW4nAJ-cCwc> helbidean urteurrena dala eta egin daben iragarkia kusi daiteke.

Ospakizunok barikuan hasiko dira, 19:00etan. Ttek elektrotxa-

IGORRE

Ingurumena hobetuteko proposamenak Argazki Lehiaketa baten bidez

Erredakzinoa

Igorreko Udalak abian ipini dau "Ingurugiroaren parte izan" Argazki Lehiaketa, herritarren-

gandik ingurumena hobetuteko proposamenak jasoteko. Argazki Lehiaketa honen gaia, bezaz, ingurumena izango da eta argazkiok Igorren ateratakoak izan behar dira. Erretratuagaz batera testu bat joan behar da, euskeraz, edozein formatu literariotan eta gehienez 80 berbak osotuten dabena. Testu honetan argazkian agertzen dana deskribidu, salatu edo hobetuteko proposamenak egin daitezke. Argazkiak bialtzeko epea zemendiaren 15ean amaituko da.

Argazkiak formatu digitalean aurkeztu behar dira udaletxe-

erregistroan edo Kultur Etxean eta artiboaren pisuak ezin izango dau 10 MB baino gehiago euki. Partaide bakotzak 5 erretratu aurkeztu ahal ditu gehienez.

Sariak

Hiru kategoria dagoz eta bako-txean sari bana emongo da. 7 eta 12 urte bitarteko umeen kategoriako irabazleak 150 euroko saria izango dau. Gazteen kategoriako irabazleak, 13 eta 20 urte bitartekoak 300 euro izango ditu sarizat eta helduak kategorian, 21 urtetik gorakoak, 600 euroko saria izango dau.

DIMA

Aurten uzta hobea Axpe Goikoan

Erredakzinoa

Txakolina egiteko mahatsa batu dabe Axpe Goikoa Dimako jatetxearen ondoko lurretan. Jatetxeak lau hektarea eta erdiko mahastiak daukaz eta urrietan izaten da mahatsa jasoteko sasoi. Behar espezialdu hau profesionalak egiten dabe.

Aurtengo uzta ona izan dala dino Iñaki Aldape Axpe Goikoako zuzendariak. "Eguraldiak lagundu egin dau eta igazkoa baino uzta hobea izango da" azaldu deutso BEGITURI. Etxerako kantidade bat itxi ostean Axpe Goikoan ekoiztutako mahatsa saldu egiten da Hondarrabi Zuri markako txakolina egiteko.



Axpe Goikoako mahastietan mahatsa batzean.

AREATZA

Basoen inguruko ekintzak antolatu ditu AKKBk hileon

Erredakzinoa

Basoak urrietan, ondarea zemen-dian eta literatura abenduan, Areatzako Kirol eta Kultur Batzordeak (AKKB), hile bakotxean gai bateri lotutako ekitaldiak antolatuko ditu. Hile honetako gaia, "gure basoak" da eta mahai-ingurua, berbaldiak, pelikula emonaldia eta espeleologia urtekera bat egiteko aukerea egongo da.

Basoak

Mahai-ingurua, Gorbeia Suzien Mendi Klubagaz batera eta Udalaren laguntzagaz antolatu dabe eta Gorbeia Suzien mendi lasterketearen inguruko egitarauaren barruan dago. Oihana Kortazar, Aritz Urdanpilleta eta Pablo Masek "Mendi lasterketen prestakuntza"ren inguruan egingo dabe berba. Hau hilaren 15ean izango da 19:00etan.

Hurrengo egunean, perretxikoen inguruko berbaldia emongo dau

Joserra Undagoitia Dimako adituak. Areatzako ludotekan izango da berbaldi hau 19:00etan.

Baina basoak benetan ezetuteko bertara joan behar da eta hurrengo ekitaldi bi urtekerak dira. Hilaren 18an, 08:00etan Galtzarrietara (1183 m.) igoera egingo dabe, handik pasetan diranean Gorbeia Suzien lasterketan parte hartuten dabenak animetako. Eta zemen-diaren 2an, Dimako Abaro koban espeleologia egiteko aukerea dago. Partaideak sasoi egon behar dira eta bertigoa daukien ezin izango dabe parte hartu; izan be, kobara sartzeko 10 m.ko rappel bi egin behar dira, baina esperientzia erakargarria da, dudu barik. Segurua eta gida profesionala dagoz prezioaren barruan (30 euro AKKBko bazkideak eta 40 euro bazkide ez diranak) eta izena emoteko eguna urri bigarrenaren 27a da, udaletxeko 3. solairuko gelan arrastiko 18:30ean. Eta basoai eskeinitako hile ho-

netan ezin zan falta, *Baso Ahaztuak* pelikulearen emonaldia. Iker Yurrebaso, Maite Yurrebaso eta Ibai Pujana arratiarrak egindako dokumentalak basogintzea eta baso kulturearen gaineko hausnarketea bultzatzen dau. Emonaldia hilaren 22an izango da, 19:30ean Udal Aretoran.

Jazz-a Bilboko Euskalduna Jauregian

Zemendiaren 6an, Kurt Elling jazz abeslariak kontzertua emongo dau Bilboko Euskalduna Jauregian Bilboko Orkestra Sinfonikoagaz, eta aukera hau ez dabe galdu gura Areatza eta Arteako zaletuak. Hori dala eta, Areatzako AKKBk eta Arteako AKKT alkarteak, alkarranean, kontzertu hau entzuteko urtekera antolatu eta autobusa ipiniko dabe. Jazz gau hau gozateko, 60 personak emon dabe izena honezkerok. Ez alferrik, Kurt Elling-ek abots-jazzeko albumik onenari Grammy-a jaso eban 2009an eta Bilboko Orkestra Sinfonikoa Big Band eran jantziko da, besteak beste Duke Ellington, Paul Simon eta Betty Carterren klasikoak joteko.

Ekintza hau, Arteako Azaro Musikalaren barruan dago.

UBIDE/ZEANURI

Zeanurik eta Ubidek pastuen inguruko bakea barriztauko dabe

Jon Urutxurtu

Urri bigarrenaren 25ean, zapa-tuan, orain dala gizaldi bat baino gehiagotik urtero errepikatzen dabenez, Zeanuriko eta Ubideko Udalak larreen mankomunidadeko kontuen kitapena egingo dabe eta bakea barriztau. Batzar hau aprobetxatuz, Zeanuri-Ubide. Larreen Mankomunidadearen VIII. Zeharkaldia egiteko aukerea be eskeiniko da.

Orain dala gizaldi bat baino gehiagotik Zeanuriko eta Ubideko Udalak alkartu egiten dira, urte batean udaletxe batean eta hurrengoan bestean —hasieran bide erdian, Barazarko mendatean, biltzean ziran— udalerririk bakotxean izena emondako abelburuen zenbakiak aurkezteko eta kontuak egiteko. Urtero errepikatzen dan ohitura eta betebeharra da. Dirudianez, batzar horren zergaitia, bazka-larreen aprobetxamentuaren inguruan udalerririk bakotxean izena emondako abelburuen zenbakiak aurkezteko eta kontuak egiteko. Urtero errepikatzen dan ohitura eta betebeharra da. Dirudianez, batzar horren zergaitia, bazka-larreen aprobetxamentuaren inguruan udalerririk bakotxean izena emondako abelburuen zenbakiak aurkezteko eta kontuak egiteko.

12 kilometroko ibilaldia

Udal bien batzar hori aprobetxatuz, orain dala zortzi urtetik, Zeanuriko Ipizki eta Joko Alai, eta Ubideko Amexier eta Ortuzar alkarteak Zeanuritik Ubidera doan zeharkaldia antolatzen dabe, Gasteiz eta Bilbo lotzean ebazan Erdi Aroko galtzadea jarraituz. Oinezko martxa honegaz hiru helburu nagusi finkatu dabez antolatzaileak: alde batetik, Zeanuriko eta Ubideko Udalen larreen mankomunidadearen inguruan urtero egiten daben batzar historikoa ezagutzera emotea eta balioestea; bestetik, zeanuriztarrei zein ubidarrei zein bisitariari udalerririk bietako ingurumariak —eta bereziki Ubidetik eta Zeanuritik igaroz Gasteiz eta Bilbo lotzean ebazan Erdi Aroko galtzadea— ezagutera emotea; eta atzenik, Zeanuriko eta Ubideko herritarren arteko hartu-emonak sendotutea.

Urtekera Zeanuriko plazan, udaletxearen aurrean, izango da goizeko 10:00etan. Plazatik abiatuz, Undurragako urtegiaren ertetik jarraituko dabe Ipiñabururantz zuzentzeko; hemetik Saldropora

igo beharko dabe. Jadanik Saldropoko zelaikadan, Lapursasitik Otzarretako pagadiaren ondotik igaro eta Ubiderantz joko dabe; atzen txanpa honetan galtzadearen aztarnak argi eta garbi azaltzen diran tarte batetik ibilteko aukerea izango dabe parte hartzaileak, atzenik Ubideko plazara heltzeko.

Zeharkaldia amaitzerakoan, hamabiren bat kilometro eroango dabez oinetan ibiltariak, baina ziur ziteari erantzutea mereziko daua, Ubide eta Zeanuri lotzean ebazan galtzadea eta bere inguruan azaltzen dan ondare naturala eta historiko-etnografikoa ezaguteagaz batera, udagoiengandik natureak azaltzen dauan koloreen sinfoniaz gozatzeko aukerea izango dabe eta.

Ibilaldiari amaiera emoteko 13:00etan, Zeanuriko eta Ubideko zinegotziak batzartu egingo dira Ubideko udaletxean; bilera horretan idazkariak udalerririk bakotxean izena emon daben abelburuen zenbakiak aurkeztuko dabez, eta bilera-agiria sinatu ostean, danak batera bazkaltzera joango dira. Datorren urtean gauza bera egingo da, baina Zeanuriko udaletxean, eta bazkaria ordaintzea be zeanuriztarrei egokituko jakie.

Izena emotea: Zeanuriko plazan, doban.

Autobus zerbitzua: 09:00etan Ubideko plazatik Zeanurira, ubidarrek edota Ubiden kotxea ixten dabenak Zeanuriko abiapuntura eroateko. 2 euro.

13:30ean Ubidetik Zeanurira, zeanuriztarrek edota Zeanuririk ixten dabenak eroateko. 2 euro.

13:00etan Ubideko eta Zeanu-

uriko Udalbatzen batzarra Ubideko udaletxean 2014ko bazka-larreen mankomunidadearen kontuak egiteko eta bilera-agiria sinatzeko.



Galtzadea.

ARRATIA

Marcela Arroita 100 urte bete ditu

Erredakzinoa

Diman dagoan Arratiako Egoitzan bizi dan Marcela Arroita zeberioztarrak 100 urte bete ebazan urri

bigarrenaren 1ean. Zorionduteko jai bat antolatu eben egoitzan, eta familakoak, lagunak eta Bizkaiko Foru Aldundiko eta Arratiako Udalen Mankomunidadeko ordezkariak egon ziran bertan.

Egoiliarrentzat be sano egun berezia izan zan. Ederto baten ospatu eben Marcela Arroita eguna. Ospakizunean, lorak, trikilarriak eta egoiliar batek inprobisatutako bertsoak ez ziran falta.

ARRATIA



Zulaibarreko ikasleak Emakunderen autobusean.

Bardintasun Zerbitzuak gazteentzako tailer eta ikastaroak antolatu ditu

Erredakzioa

Beldur Barik kanpainearen barruan dagoz gazteentzako tailer eta ikastarook. Izan be, lehiaketa bat baino gehiago jarkera bat da Beldur Barik eta jarkera hori bultzatzeko beharrea dabil AUMeko Bardintasun Zerbitzua. Gazteen artean andrakanako indarkeria prebeniduteko Mankomunidadeak, aurten hirugarrenez, Beldur Barik kanpaina ipini dau martxan.

Ikastaro honeen helburua, eraso sexisten aurrean neska-mutilak zeregin aktiboa izatea da eta Gaztebiz programaren diru laguntzeagaz antolatu dira. Aurtengo Beldur Barik kanpainearen barruan, lehiaketa, Lanbide orientazio ez sexistearen inguruko tailerrak, DJ ikastaroa eta Eder-tasunaren indarkeriaren gaineko tailerra egongo dira.

Emakunderen autobus ibiltaria

Lanbide orientazio ez sexistearen inguruko tailerrak, Lemoako DBH eta Zulaibarreko ikasleen- tzat antolatuta egoazan. Dimako eskolakoak be Nahiko programea landu eben. Tailerrok urri bigarrenaren 13an izan ziran Emakunderen autobus ibiltarian eta autobusean bertan jaso eben formazioa gaztetxoak.

Hilaren 25ean eta zemendiaren 8an DJ ikastaroa egongo da Igorren eta Igorreko Institutuko ikasleak, zemendian, Edertasunaren indarkeriari buruzko tailerra izango dabe.

Beldur Barik Lehiaketa

Arratiako gazteak Beldur Barik Lehiaketan parte hartzean animetako, Arratia mailako sariak emongo ditu Mankomunidadeak. Zemendiaren 12ra arte aurkeztu daitezke lanak. Sari banaketea Bedian izango da zemendiaren 28an.

ARRATIA

Akordiorik ez Bizkaibusen

Erredakzioa

24 orduko hiru greba egun egin ostean, akordio batera heldu barik jarraituten dabe Bizkaibuseko beharginak eta Bizkaiko Foru Aldundiak. Akordiorik lortzean ez badabe hilaren 15ean, 17an, 20an, 21ean, 23an eta 24an be egun osoko greba egingo dabe. Hilaren 27an adostasunik ez bada, greba mugabakoa ipiniko dabela abian iragarri dabe sindikatuak.

Beharginak 2013an sinatutako akordioa bete dagiala eskatzen deutesie Foru Aldundiari. Akordio haretan aldundiak konpromisoa hartu eban beharginen amortizazioa ez onartuteko eta orduan egoazan lanpostu guztiak mantenduteko. UGT, CCOO, ELA, LAB eta LSB sindikatuak uste dabe hori ez dala beteten.



ARRATIA

Gazte programak aisialdi osasungarria eta parte hartzailea bultzatuko dau



Erredakzioa

Arratiako Udalen Mankomunidadeak gazteai zuzendutako programa barria sortu dau Bizkaiko Foru Aldundiko "Gaztedi Bizkaia" proiektuaren babes eta diru-laguntzeagaz. Arratiako Gazte Programea, eskualdeko 12-18 urte bitarteko neska-mutilai zuzenduta dago. Ekimen honek aisialdi osasungarria, parte hartzaile eta integratzailea sustatzea dauka helburu. Horretarako, topaketa eremu bat sortuko da eta han, baloreetan oinarritutako heziketea sustatuko da; metodologia aktiboa, sortzailea eta integratzailea erabiliz.

Programa honen barruan, aste-ko ekintzak, hileko ekintzak eta ekintza bereziak egingo dira. Aste-

ko ekintzak Igorreko Kultur Etxean izango dira, barikuetan, arrastiko seiretatik zortziretara. Gazteen intereseko gaitan oinarritutako tailer eta ikastaroak egingo dira: ikus-entzunezko saioak, DJ ikastaroa, jantza ikastaroak, eta abar.

Arratiako herrietan antolatutako ekintzetan parte hartzeako taldea sortu da. Hilean behin, ekintza egiten dan herrira joan eta parte hartuko dabe gazteak. Holan, barbarako, zugatz egunera joan, mendiko martxak egin, lehiaketetan parte hartu eta kirol txapelketara aurkeztuko dira.

Aste-ko eta hileko ekintzez gainera, ikasturtean zehar urtekera bi egingo dira: Aste Santuan egun batekoa, eta udako oporretan hiru egunetako.

Oparitu BEGITU-lagun!

* Deitu 649 979 115 telefonora

Egizu zure laguna BEGITUREN harpidedun eta otzara bete kultura oparitutako deutesazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegiaren eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

35€, 55€
edo 75
Euroren truke



ARGAZKI LEHIAKETE

"Castellet" izeneko argazkiak irabazi dau Oporretako BEGITUREN Argazki Lehiaketea

Areatzako Miren Uruxturtuk BEGITURA bialdutako "Castellet" izeneko argazkia izan da aurtengo Oporretako Argazki Lehiaketako irabazlea. Irabazleak gau bat landetxe baten izango dau saritzat. Bigarren, Kattalin Astondoak bialdutako "Oinatzak Urdaibain" izeneko argazkiak egin dau. Honek be saria izango dau: AMEk emondako 50 euroko bonoa, Igorreko dendetan gastetako.

Guztira 55 argazki jaso doguz. Hogetabost arratierrek konpartidu dabe BEGITUREN irakurleakaz eurentzat berezia izan dana. Momentu eder horreetako batzuk dakarguz hona.



Miren Uruxturtuk bialdutako argazkia. Lehenengo saria.



Kattalin Astondoak bialdutako argazkia. Bigarren saria.



946 319 008
658 195 091

Udagaien eta neguko kolezino barriak ikusi gura badozuz, SARTU FACEBOOKera
www.facebook.com/galanta.lenceria

Agirre Lehendakaria 23
48.140 Igorre
galanta@hotmail.es

GALANTA
zure barruko arropa



M. JOSE
barrutik janzen zaitu

G

Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsioa
Lentillen adaptazinoa
Kiroletarako betaurrekoak

Olaetxe
OPTICA ZENTRUA

Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es



FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

Abel Lapatza Iza
Taxi zerbitzua 24 ordu
Dima
946 317 252
608 287 249

BOLA JOKOA

Otzerinmendirentzat Zeanuriko kofradien arteko Bola Txapelketea



Otzerinmendiko taldea, Zeanuriko Udala eta Kiloterdi Tokoko (Ellauri hotela) ordezkariakaz. Argazkia: Jon Urutxurtu.

Jon Urutxurtu

Otzerinmendik irabazi eban urri bigarrenaren 4an Altzustako bolatokian jokatu zan Zeanuriko kofradien arteko Bola Txapelketea. Udalerria osatzen daben zazpi kofradietako ordezkariak hartu eban parte taldeka jokatu zan txapelketan: Alzuak, Altzustak, Asterriak, Iburguenek, Ipiñaburu-Undurragak, Otzerinmendik eta Uribek.

Lehenengo tokirako, bardinketea izan zan Otzerinmendi, Asterria eta Iburguenen artean, eta gerran erabagi behar izan zan irabazlea; amaieran txapela Otzerinmendi joan zan; 2. Iburguen sailkatu zan eta 3. tokian Asterria.

Otzerinmendiko taldea honako bolari laukoteak osatu eban: Maximo Beitia, Egoitz eta Ibai Arana eta Julian Meabek. Irabazi eban saria: 120 euro eta afarria Kiloterdi Txokoan, Ellauri hotelaren jatetxean.

MENDI LASTERKETEAK

Lasterketea, martxea eta "mendiaren inguruko jaialdia" da Gorbeia Suzien



Aldamin eta Gorbeia. Korrikalari eta martxalariak Gorbeiko tontorrera bidean igaz.

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 18an izango da Gorbeia Suzien Banco Mediolanum Sari Nagusia. Aurten nazioarteko mendi-lasterketen federazinoko (ISFko) Skyrunner National Series zirkuitoan sartu da. Holan, Gorbeia Suzien 2014ko Skyrunner National Championship izango da.

Ibilbide nagusiak 32 km eta 2.300 metroko desnibel positiboa dauka. Hirugarren edizino honetan beste tontor bat sartu da ibilbidean: Lekanda. Sari barriak be egongo dira. Holan, ibilbidearen tarte baten neurtuko dan Kilometro Bertikal partzialak, saria izango dau. Erronka honek 5 km eta 1.000 metroko desnibel positiboa daukaz, San Justoko baselizatik Lekandako tontorreraino. Indarrak ondo neurtu beharko dabez parte hartzaileak, ze ondoren 20 km

gehiago egin beharko dabez lasterketea amaituteko.

Kirolari ezagunak

Lasterketa honetan parte hartuko daben artean, kirolari ezagun asko dagoz. Bertan egongo dira Ionut Zinca, aurreko bi urtetako irabazlea; Nuria Picas, Maite Maioa, Zaid Ait Malek, Hassan Ait Chaou, Javi Crespo edo Leire Arrizabalaga, bigarren edizinoan irabazlea, beste askoren artean. Denis Urubkok eta Alex Txikonnek Urubkoren proiektzio baten emonaldian parte hartuko dabe barikuan 20:00etan Zeanuriko egunean galapan egingo dabe Gorbeia Suzien mendi lasterketan.

Gorbeia Suzien mendi martxea

Lasterketeaz gainera, martxa ez lehiakorra be bada Gorbeia Suzien. Ibilbide bi dagoz aukeran,

Gorbeiko Parke Naturaleko txoko ezutuak ezetu eta martxarako izena emon dabenak aukeratu dagien. Ibilbide luzeak 29 km. ditu eta 1.850 metroko desnibel positiboa, laburrak, barriz, 22 km eta 1.100 metroko desnibela.

Mendiaren inguruko jaialdia

Gorbeia Suzien, lasterketa bat baino gehiago, "mendiaren inguruko jaialdi bat da" antolatzaileen arabera eta egitaraua lasterketearen eguna baino lehenago hasten da. Mendi lasterketen prestakuntzearen gaineko mahai-ingurua, proiektzioak eta berbaldiak egongo dira lasterketearen astean. Lasterketea eta martxaz gainera, "zapateria, mila ekimenez josita egongo da: 200 metroko tirolina eta mendiko materialeko bigarren eskuko azokea barne. Eta domekan umeak izango dira protagonistak, umeen lasterketan".

Okindegia
+ Ke... PAN
Etxean bertan egindako pastelak

IGORRE
Lehendakari
Agirre 11
94 656 65 52
Sabino Arana 35
94 657 3898
AREATZA
Goiko kalea 8
94 608 90 47

ARA MOTZ
Landerria O Jabetzen!

OPEL
Ibaigane, S. Coop. Ltda.
Estazioa, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Telf: 631 33 30 - 631 31 31
Fax: 631 36 15

BOXPAL
618 59 81 71
Pintura lanak
Iturgintza
Instalazio elektrikoak - aberiak
Lehia eta ateen konponketa
Pertsiana konponketa
Igeltzerotza
E-posta: boxpalboxpal@yahoo.es

24h
EGUNEKO
OGIA
vending pan
IGORRE
Lehendakari Agirre

HERRIKO BENTA
HOSTAL
HERRIKO PLAZA
48142 ARTEA (Bizkaia)
Tel: 94 631 72 56

Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Eskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 45 Faxa: 94 673 90 45 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 40 22 Faxa: 94 673 40 22 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Mour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiako.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

MENDIA

Mendi eta bizikleta martxak Igorren, Artean eta Ubiden



Igazko Arratia-Ubide-Otxandio mendizale eguneko irudia.

Erredakzioa

Udagoiena urte sasoi aproposa da mendira joateko eta oraingo hileko bigarren hamabostaldian, hainbat aukera dagoz mendian ibialdia egiteko oinez edo bizikletaz. Hilaren 19an, Gorbeia Suzien-eko martxaren hurrengo egunean, Igorren Mugari Bira eta Artean Mendiko Bizikleta martxea egongo dira. Hilaren 26an, barriz, Arratia, Ubide eta Otxandio mendizale eguna ospatuko da.

Ibilbide bi izango ditu, Motxoganeke antolatutuan dauan XXVII. Mugari Bira, Igorreko martxak. Ibilbide luzeak 25 km. ditu eta laburrak 12 km. Izen emotea, Igorreko kiroldegian izango da, urten aurretik. Ibilbide luzea egin gura dabenak, 08:00etan emon behar dabe izena eta 08:30ean bideari ekin. Laburra egiteko, barriz, 08:30ean emon behar da izena. Honek 09:30ean abiatu dira.

Artean BTT martxea

Mendian bizikletaz ibiltea gurago dabenentzat, III. Arteko BTT martxea antolatu dau Artean Kirol Kultur eta Euskera Taldeak (AKKT). Hemen be ibilbide bi dagoz aukeran, luzea 42 km.koa eta laburra 29 km.koa. Luzea egi-

ten dabenak Mandoia eta Bikotx Gane mendietara igoko dira, laburra egiten dabenak barriz, Mandoiara eta Lauretara igoko dira. Urtekerea 09:30ean izango da Arteko plazatik eta izena www.akkarte.com webgunean emon behar da.

Arratia-Ubide-Otxandio mendizale eguna

Arratia-Ubide-Otxandio XV. edizioa Ubideko Amexier mendi taldeak antolatu dau. Martxea Ubideko plazatik urtengo da 08:30ean. Ibilbideak 15,7 km.ko luzeerea dauka eta 500 metroko igooera.

Partaideak Ubideko plazatik urtengo dira, Siskiñotik pasau eta Oketara igongo dira. Handik Muruetako harrobietara jeitsiko dira. Gero, Lexarandatik Aturdira eta handik Ubideko plaza; hau da, helmugara. Martxea amaitutakoan kopaua egongo da partaide guztientzat.

Izen emotea 5 euro da nagusien kasuan eta doban umeentzat. Hilaren 22a baino lehenago egin behar da, hurrengo telefono honeetara deituta. Arantzazu, 659 213 493; Igorre, 628 619 040; Lemoa, 675 701 359; Ubide 696 744 988 eta Zeanuri 669 156 500.

FUTBOLA

Arratia Futbol Taldeko nagusientzako hasi da denporaldia

Ainhoa Duñabeitia

Arratia futbol taldeko gizonetzako lau partidu jokatu dabez eta horreetatik bi irabazi eta beste bi bardindu egin dabez. Urri bigarrenaren 11n etxean jokatu eben Begoñaren kontra. Bina bardindu eben. Hurrengo norgehiagokea Ortuellaren aurka izango dabe etxetik kanpo.

Andrazkoen taldeak be denporaldia hasi dau, partidu bi jokatu dabez. Lehen jardunaldiko neurketan bardinketea lortu eben Betiko Neskak taldea aurkari izanda. Bigarren norgehiagokea hilaren 12an izan eben Igorreko Urbietara zelaian Beasainen kontra, 0-2 galdu eben arratiarrak.

Gizonetzako bigarren taldeak urri bigarrenaren 19an hasiko dau aurtengo denporaldia. Etxean estrenauko dira Iberlandaren kontra.

ERRUGBIA

Beste porrot bat

Ainhoa Duñabeitia

Arratiko Zekorrek RTk ez dau ondo hasi denporaldia, partidu bi jokatu dabez Arratiako denporaldia hasi zanetik, eta biak galdu dabez. Atzen neurketea Irunen izan eben, urri bigarrenaren 4an. Norghegiagokako azken emoitzea Zaisa Irun RT 20, Arratiko Zekorrek 15 izan zan. Hurrengo partidua etxean izango dabe Zekorrek; Igorren. Etxeko berotasunean jokatuko dabe Funes Rugbyren aurka, hilaren 18an.

TRONTZEA

Arratiakoak pozik Euskadiko Trontza Txapelketan egindako denporeagaz

Erredakzioa

Aitor Loiola eta Ruben Gumuziok parte hartu eben urri bigarrenaren 5ean Anizen jokatu zan gizonetzako lehen mailako Euskadiko Trontza Txapelketaren finalean. Sei bikote neurtu ziran eta arratiarrak seigarren egin eben. Ultzama Berberena anaiak, faboritoak, irabazi eben txapela.

Bikote bakotzak 60 ontzakoari goitik beherako bost ebaketa enborra etzanda, 54 ontzakoari

ezkerretik eskuinerako sei ebaketa enborra zutunik dala, eta 60 ontzakoari goitik beherako 5 ebaketa enborra entzanda egin eutsazan.

Ruben Gumuziok eta Aitor Loiolak 18 minutu eta 46 segundu behar izan ebezan beharra amaituteko. "Balorazino ona egiten dogu. Pozik geratu ginan. Izan be, urtebete baino ez da honetan hasi ginala eta gure helburua 20 minutu baino gitxiagoako denporea egitea zan" azaldu deutso BEGITURI Aitor Loiolak.

INERTZIA

Unai Loiola bigarren Espainiako Inertzia Kirolen Txapelketan

Irati Urien

Unai Loiola bigarren gelditu da Espainiako Inertzia Kirolen Federakuntzako Txapelketan. Puerto de San Miguelen

izan zan finala, Kantabrian. Bi izan ziran parte hartzaileak. Unai Loiola bera; eta Alberto de Nicolas "Celu". De Nicolas profesionala da, hogeita bost urte daroaz patinetan, hamabi downhill egiten. Arratiakoa udan hasi zan modalidade honetan. Denporeari jagokonean, sano hur ibili ziran biak 2'43" behar izan ebazan de Nicolasek, 3' gehiago Loiolak. Emoitzeagaz pozik dago, baina aurkari gehiago eukitea gustauko litxakiola aitortu dau. Materialak garrantzia handia daukala eta orain eruda barriak, handiagoak ipini deutzaz patinai. "Datorren urtean irabazteko intentzinoa daukat", adierazo dau.

www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

LEHENENGO URTERO KURTAN
15ko DEKUBUA
LEGIORREKIN
basolo Emaldi
Abokatuak
620.57.86.04
asierbasolo@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

MERKA LABELA-HARATEGIA
Etxeko produktok:
• Txerizok
• Olotzok
• Buzkantzok
• Salzitok
• Hamburgesak
Arratiako produktok:
• Baserriko etxak
• Urtsak
• Baserriko arrautzak
• Txerriak
• Harriak
• Geroak (jate eta barazkiak)

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Felig. Mendizola, s/n. 48550 LEMOIA, Bizkaia
Tel. 609 481 830 eta 609 200 717

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

KIRRU ILEAPANDEGIA SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 06

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

umoon modu
sem
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • semmoda@hotmail.com

DISKOA

Nire bihotzak zure begiak ditu Gontzal Mendibilen disko barria

Berak sortutako hamaika kantu barri dagoz diskoan eta Areatzako plazan hilaren 24an, 20:00etan, eskeiniko dauan kontzertuan be entzun ahal izango dira kantuok.

Erredakzioa

Gontzal Mendibil kantari zeanuriztarrak 40 urte musikan beteten ditu aurten, eta horregaitik gura izan dau hain disko personala ateratea.


Diskoa hedabideetara hilaren 30ean aurkeztuko dan arren, lehenago entzun ahal izango ditue kantu barriak kontzertura joaten diranak. Hamaika kantu barri honeek egitea hiru urtetako beharra izan da. "Oso gustura gelditu nazan lana dot berau. Zuzena eta indartsua" dino Mendibilek.

Sentipen sakonak eta mezu zuzenak

Bederatzi kanturen hitzak egin ditu Gontzal Mendibilek; tartean, "Nola liteke!" aspaldi ez dala istripuz hildako laguna zan Alex Angulori dedikautakoa. Joseba

Sarrionaindiaren berbak be musikau ditu "Badakizu zer den gure herria?" kantuan. "Ez dakit dakizun baina..." Euskadiko Orkestra Gazteagaz grabauta dago. "Edan itzazu egunak, horditu zaitez bizitzaz, jabe zaitez zeu zarenaz" dino beste kantu baten.

Ezin ukatu sakon bizi eta sentidutako gaiak adierazoten dituala zeanuriztarrak atzen disko honetan.



ONDAREA

Intereseko eraikinak ezetuteko berbaldi eta bisita gidatuak

Erredakzioa

Etxea hartu dabe gaitzat Europako Ondarearen inguruko jardunaldiak aurten. Hilaren lehenengo hamabostaldian Zeanurin eta Areatzan inguruko intereseko etxe eta eraikinak ezetuteko aukerea egon zan eta, bigarren honetan, Igorreko eraikinen ezaugarriak eta historia jakiteko txandea da.

Igorren, Ekain Pujanak emongo dau jakitera zeintzuk diran Igorreko intereseko eraikinak, hilaren 22an emongo dauan berbaldian. Lasarte Aretan izango da, 19:30ean.

Hurrengo zapatuan, Angel Larea historialariak gidatuko dau erdigunetik bisitea. Honeek dira partaideak ezetuteko dabezan eraikinak: Yurregoicoa izeneko jauregia, Beheko Plaza 14-16 helbideko etxeak, Torrea baserria, Zubizarreta txaleta, Arratiako Udalen Mankomunidadeko etxetarra eta bere sasoian Artzain Etxea izandakoa,

**Jardunaldietako kartela.**

gaur egun Olabari Jauregia izenez ezetuten dana.

Areatzan lau bisita gidatu egunean egin eben

Uri bigarrenaren 11n eta 12an, Mikel Urizek gidatuta, egunean lau bisita egin ebezan interesatuak Areatzako etxe eta eraikinen ondarea ezetuteko. Aztertutako etxe eta eraikinak XV. mendetik hasita XIX. mendera artekoak izan ziran: Bekokalea, Erdi Arokua; Gortazar jauregia, Erukineko jauregiak eta Igeltsoen etxea, Errenazimentukoak eta Batzokia, Kristo eta Askatasun etxeak, XIX. mendekoak, hain zuzen be.

EUSKAL JAIA

Euskal musikea, jantzea eta kantu tradizionalak Areatzako Euskal Jaian

**Erredakzioa**

Musikea, jantzea eta kantu tradizionalak izango ditu ardatz aurtengo Areatzako Euskal Jaia. Hilaren 25 eta 26an izango da, zapatu-domekaz, eta Arratia eta kanpoko jantza taldeak kalejireta eta jantza ikuskizuna egingo dabe. Areatzako Euskal Jaia herritarren partaidetza izaten dau eta jantzi tradizionalak soinean urtetan dira billaroztarrak jaia girotzeko.

Zapatuan, hilak 25, euskal musika tresnen feria eta Gorbeialdeko ekoizleen azokea egongo dira. Gorbeialde inguruko ekoizleen azokan, gaztaiak, ezta, ogia, pastelak, ortuariak, txakolina eta taloak egongo dira salgai. Artisauek be, egurra, keramikea eta narruzko produktuak salduko dabe. Plazan, euskal musika tresna tradizionalak egiten dabezen artisauek egongo dira.

Azoka honeek egin bitartean, Arratiako Musika Eskoleak kalejireta egingo dau eta Bizkaiko Kantuzaleen topaketea egongo da. "Musika eskolea hasikeratik inplikau zan antolakuntzan, eta kalejira erraldoia egiteko eskeini eban bere burua. Kalejireari lagunduten, Maurizia, Leon eta Fasio musikarien txotxongilo erraldoiak be izango dira" azaldu dau Sara Gutierrez zinegotziak.

Kantuzaleen topaketea

Bizkaiko Kantuzaleen topaketea zapatu goizeko ekintza nagusia izango da. Bizkaia mailan dagozan kantu-guneetako taldeak konbidau ditue Areatzakoak eta Gernika, Plentzia, Erandio eta Santutxukoak izango dira Euskal Jaian. "Euskal Herrian gero eta indar gehiago hartuten dago kantu birak antolatutea, eta ohitura hori berreskuratu gura dogu Areatzan".

Ekitaldi hau plazan hasiko da eta Josu Zarate Bizkaiko kantu guneen koordinatzaileak zuzenduko dau Areatzako herritik egingo dan kantu bira.

Berrehun euskal abesti inguru daukan kantu liburu bat argitaratu dau Udalak, eta egun horretan plazan salgai egongo da. Bost euroren truke, kantu liburua, hasikerako brindisa eta 13:00etan zerbitzatuko diran pintxoak eta edariak erosi daitezke.

Ondoren herri bazkaria izango da frontoian, eta bazkalostean, Areatzako txistularien kalejireta, jantza plaza Erdizka Lauetan taldeagaz eta berakatz zopea egunari amaiera emoteko.

Domekan, jantza alardea

Jantza alardeagaz beste sasoi batetako euskal jaia gogora ekarri gura dabe Areatzakoak. "Jantza alardearen proposamena batzarretan atera zan eta gogora ekarri gura izan doguz orain 30 urte inguru Areatzan egiten ziran jantza alardeak. Orduan, kanpotik hainbat jantza talde etorten ziran herrira jantzan egitera, eta gero jantzariak herriko familien etxeetan geratzen ziran bazkaltzen. Oso esperientzia polita izaten zan".

Eguerdiko 12:00etan, parketik urtengo dira kalejiran jantza taldeak eta jantzan joango dira plazara. Eureka, Areatzan sortu barri diran Bartolo eta Madalen txotxongilo erraldoiak be izango dira.

Plazan jantza bina eskeiniko dauz jantza talde bakotzak. Igorreko Arantzarte jantza taldea, Galdakaoko Andra Mari, Erandioko Goialde eta Zeanuriko, Dima eta Areatzako jantza taldeak hartuko dabe parte ikuskizun horretan. Ondoren, jantza taldeak eta herriko jentek batera, jauziak, jotak eta Larrain jantzea egingo dabe.

KONTZERTUAK

Seiren eta Behind The Quiet Corner-en

Erredakzioa

Hamabostaldi honetan, Areatzako The Quiet Corner tabernan, musika zuzenean entzuteko aukerea egongo da bariku bitan, 17an eta 31n, hain zuzen be. Lehenengo hitzordua Zornotzako Seiren taldeagaz izango da, eta bigarrena, Behind bikoteagaz.

Pop-folk musikea egiten dau Seiren taldeak eta hiru disko ditu kalean. *Pertsona baten bila* (2009), *Marraren beste aldean zu* (2010) eta *Udazkena* (2012). Seiren taldeko buru diran Jokin Lacalle eta Onintze Garcia egongo dira Areatzan.

Hilaren 31n, beste bikote bat, Behind taldeko musikariak barriro be Areatzan egongo dira. Zezeilan be egon zan The Quiet Corner tabernan Javier Irigoien eta Gerardo Sagastik osotuten daben taldea. Eric Clapton, Beatles, Neil Young, David Bowie eta beste "klasiko" batzuen musikea jotzen dabe. Aurreko emonaldia hainbeste gustau jakien Corner-ekoai, ze barriro taldea ekarte ebatzi daben.

**Seiren taldea.**

MUSIKEA

Azaro Musikala Artean

Erredakzioa

Arteko Kultur Kirol Taldea, Arteko beste eragileakaz batera Azaro Musikala prestatzen dabil. Hainbat ekintza izango dira zemendian egitekoak, lehenengo biak zemendiaren 1ean eta 6an izango dira.

Zemendiaren 1ean, 13:00etan, Begi Argiak abesbatzagaz urtengo dira arteztarrak kalez kale abesten. Egingo daben ibilbidea da Herriko Plazatik Ekomuseora eta handik buelta Herriko Plazara.

Zemendiaren 6an, barriz, Areatzako Kirol eta Kultura Batzordeagaz batera, Bilboko Euskaldunara joateko urtekerea antolatu dabe, Kurt Elling-egaz Jazz gaua izateko.

ZINE KLUBA

Orson Welles zuzendariari eskeinitako zikloa Igorren

Erredakzioa

Orson Welles aktore eta zuzendari estadubatuarrari eskeiniko deusaz Igorreko zine klubak hiru saio. Urri bigarrenaren atzen eguenean, hilak 30, izango da lehenengo saioa eta zinemdiaren lehenengo eguen bietan beste biak. Pelikula honeek Lasarte Aretan, 20:00etan proiektatuko dira.

Orson Wellesek sasoiko konbenzino zinematografikoak apurtu ebazan eta atzenean Hollywood-entzako "zinemagile madarikatua" izan zan. Bere pelikularik ezagunenak, *Citizen Kane* (1941) pelikuleak, zabalduko dau Igorreko zine kluba. Film hau inflexino puntua da zinemaren historian: alde batetik, lehenago egin zan zinea laburbiltzen dau eta bestetik, hurrengo hamarkadetan egingo danarentzat oinarriak ipiniko ditu. Hilzorian dan presaren handiki baten istorioa kontetan dau. Charles Fosterrek hil aurretik berba misterioz bat esaten dau "Rosebud". Kazetari batek ikerketea hasiko dau berba horren esangurea ezetuteko, holan personajearen barrena helduko dala pentsatuz.

Zemendian hurrengo biak

Touch of evil (1958) filmak,

Sed de mal izenburua izan eban itzulpenak, polizia mexikar eta estadubatuarraren arteko alkarlana kontetan deusku. Miguel Vargas polizia mexikarrak hilketak bat ikeru beharko dau bape be fidagarria ez dan Quinlan polizia estadubatuarragaz batera. Komertziala eta asmo artistiko bako pelikulea izan behar zana, maisulan bihurtu zan eta gaur egun oraindino aztertzen da zinema eskoletan hasikerako sekuentzia planoak. Zemendiaren 6an, egongo da Igorren.

Amaitzeko, *Chimes at midnight* (1965), *Campanadas a medianoche* legez ezagutzen doguna, zemendiaren 11n proiektatuko dabe Lasarte Aretan. Film honetan, Orson Welles-ek Falstaff mozkortiarren papela antzezten dau. Shakespeare-en bost antzeztan zatiak hartuta eginda dago film hau. Falstaff personajearen antzezpenean, Welles-en karrerako zirraragarrietakotzat jotzen dabe zinemazaleak.



BERTSOLARI TXAPELKETEA

Hasi da Bizkaiko Bertsolari Txapelketea

Erredakzioa

Arratiako hiru bertsolari saiatuko dira Bizkaiko txapela Arratiara ekarten, Iñaki Iturriotz Igorrekoa, Igor Menika Arantzazukoa eta Zeanurin bizi dan Arkaitz Estiballes 2012ko Bizkaiko txapelduna.

Oholtzara igoten lehenengo Iturriotz izan da. Bertsolari Txapelketaren lehenengo saioan parte hartu eban, urri bigarrenaren 12an. Mallabiako Beñat Ugartetxeak irabazi eban kanporaketea, beraz, berak lortu eban finalerako zuzeneko txartela. Iturriotzek 337,5 puntu batu ebazan eta puntuazioen zain geratu da finalerretarako txartela lortuko dauan jakiteko.

Igor Menika Arantzazukoa izango da hurrengo eta duda barik, Arratiako zale asko egongo dira Menika animetan. Zeanuriko frontoian arrastiko 17:30ean izango da kanporaketa hau zemendiaren 9an. Arratiarragaz lehen egongo dira, Ander Elortegi, Beñat Vidal, Imanol Uria, Joseba Barandiaran eta Xabat Gallettebeitia.

Arkaitz Estiballes finalerretarako hasiko da, aurreko edizinoan Bizkaiko txapelduna dalako. Amorebieta-Etxanoko Zelaieta zentroko frontoian finalerretarako hau, abenduaren 7an izango da.

Hiru fase

Txapelketak hiru fase ditu: bost kanporaketa, hiru finalerretarako eta finala. Finala, abenduaren 20an izango da Miribillako Bilbao Arenan.



Arkaitz Estiballes Ormaetxea (Galdakao, 1977)

Euskal Filologia ikasketak egin ebazan Deustuko Unibertsitatean. Ikastetxe eta bertso eskoletan irakasle ibilia da. Galdakako bertso eskolan hasi zan umetan Jon Enbeita irakasle ebalak. Ondoren, Jon Lopategiren eskuetatik pasata, eskolartekoetan kantau eban. Hainbat bertso paper lehiaketa be irabazi ditu. Santutxuko Bertso Eskolako kidea da eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketan finalista izan da 2000ko ediziotik. 2010 eta 2012an Bizkaiko Bertsolari Txapelketako txapelduna izan da. Gaur egun Zeanurin bizi da.

Iñaki Iturriotz Zuluaga (Igorre, 1983)

Arratiako Bertso Eskolako kidea da. Kazetaritza ikasketak egin ostean, Bizkaiko Bertsozale Elkartearen egiten dau behar, hezkuntza arautuko irakaslea da. Txapelketako komunikazio taldean parte hartzen dau. 2012ko Arratiako bertsolari txapelduna izan zan eta Bizkaiko Txapelketan finalerretarako kantau eban. Zazpigarren aldiz parte hartuko dau 2014ko Bizkaiko Txapelketan.

Igor Menika Bengoetxea (Arantzazu, 1975)

Arantzazun bizi dan arantzazuztarra da. Bizkaiko bertsozale alkarleantzen egiten dau behar. 1994an hartu eban parte lehenengoz Bizkaiko Bertsolari Txapelketan. Sasoi haretan Araba-Bizkaiko Txapelketea zan. Aurtengo Arratiako bertsolari txapelduna da.

DUNBA

Gorbeia, gure paradisia

Gorbeia da gure parke naturala, euskaldunen artean oso ezaguna eta maitatua.

Zeanuriko 6. mailako ikasleak

1994. urtean ofizialki izentau eban Parke Natural. Aspalditik atzerritar asko ikusten da gure herrian, Madrildik, Kataluniatik, Andaluziatik zein europar herrietatik etorritakoak dira eta herriko landetxeetan egun batzuk pasetan geldituten dira.

Hau dala eta, Gorbeia leku zoragarriak aitatutea eta istorio interesgarri batzuk kontetea bururatu jaku.

Lehenengokoa, Gorbeia kurutzera joatea da, handik dagozan bista ederraz gozatzeko. Gorantzakoan, Arrabako landatik Kargalekurantz, Neberbarri izeneko nebarea bisitatu leiteke.

25 metro ditu eta sasoi baten izotza egiten zan bertan.

Azpimarratzekoa da, 1924. urtean Zeanuriko Eleuterio Goikoetxeak Egiriñaon dagoan aterpetxea handitu ebala, bisitari kopuru handia ebala ikusita.

Araba aldean Mairulegorreta kobazuloa dago eta Arimekortatik joan daiteke eta bertan mila urteko hagina ikusteko aukerea dago.

Kobazuloan Kuaternarioko hartza, lehoia, errinozeronte eta lehoiabarreko hazurrak topau ebazan. Istorio batek dinoanez, Mairulegorretako lurpean urregorria dago baina momentuz, inork ez dau ezer topau.

Itxinara joan ezker Axulurreko

"begia" eta Supelegor kobazuloa ikusi daitezke. Harriz eta zuloz beteta dagoan inguru honetara joateko sarrerarik politena Axulaur begitik da. Harrizko ate bat da. Beherantza Supelegor kobazuloa dago. Kondaira batek dinoanez, Mari Anbotokoa neguan Anboton eta udan Supelegorren egoten zan eta antza danez, Orozkoko biztanle batzuk, Mari suzko bola bihurtuta, zerua abiadura handiz zeharkatzen ikusi eban.

Beste istorio batek dino,

kobazuloan abereentzat zein landareentzat ekaitz oso kaltegarriak eragiteko gaitasuna eukan jeinu bat bizi zala eta artzain batzuk, Supelegorren araoa egiteko, Zeanuriko Ipiña auzoko abadeari deitu eutsiela. Jeinuari araoa egin ondoren, abadearen sotaneak su hartu eta, bildurraren bildurrez, handik gitxira abadea hil egin zala.

Saldropo ekosistema berezia daukan parajea da, balio ekologiko handiko hezegunea



6. mailako ikasleak.



eta bertan landare bereziak topau daitezke, esate baterako insektujaleak.

Hemetik hurbil Otxazarretako pagadia ikusteko aukerea dago. Ipuin magiko batetik aterata dagoala dirudi.

Ipiñabururantz doan bidean, 35 metro dituan Uguna ur-jauzia dago. Ikaragarria! Argazki politik aterateko leku parebakoa.

Ausardia frogatzeko leku aproposa da Atxuriko pasabidea, Saldropotik Aldamiñapera joateko hormaren kontra dagoan bidea.

Eta ikusteko baino, entzuteko da hurrengoko proposamena: oreinen orroak udagoienean; kontu handiz eta oreinak molestau barik egin behar dana.

AGENDEA

**URRI BIGARRENAK 15
ARANTZAZU**

17:00etan, Menpekotasunari buruzko jardunaldiak. "Eskubideak, baliabideak eta egoerari aurre egiteko estrategiak". Erabilera askotako lokalean.

AREATZA

19:00etan, "Mendi-lasterketen prestakuntza" mahai-ingurua. Oihana Kortazar, Aritz Urdanpilleta eta Pablo Mas. Udal Aretoan. AKKB eta Suzien Mendi Klubak Areatzako Udalaren laguntzeagaz antolatuta.

LEMOA

19:30ean, jaien balorazinoa udaltxean.

**URRI BIGARRENAK 16
AREATZA**

19:00etan, Joserra Undagoitiaren berbaldia "Perretxikoak agotik gorantz" Ludotekan. AKKB antolatuta.

IGORRE

19:00etan, Nuria Picas eta Zigor Iturriaren berbaldi eta proiektinoak Kultur Etxean. Suzien Mendi Klubak antolatuta.

LEMOA

17:00etan, Menpekotasunari buruzko jardunaldiak. "Eskubideak, baliabideak eta egoerari aurre egiteko estrategiak". Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

**URRI BIGARRENAK 17
AREATZA**

21:30ean, Seiren taldearen kontzertua The Quiet Corner-en.

DIMA

17:00etan, Gorputz adar pelbikoa lantzen. Berbaldia eta saio praktikoa. Gaztetxean.

IGORRE

18:30ean, Palestinako gatazkearen inguruko berbaldia, Askapenako brigadista baten eskutik. Kiñu Gaztetxean. Emaik antolatuta.

ZEANURI

Gorbeia Suzien. 17:00etan, Jordi Saragossaren berbaldia "Viviendo con la familia Salomon". Kultur Etxean. 19:00etan, Maider Yabarren erakustaldia. 20:00etan, Denis Urubkoren proiektinoak eta berbaldia frontoian.

**URRI BIGARRENAK 18
AREATZA**

08:00etan, Galtzarrietara (1.183 m.) igoera, Gorbeia Suzieneko lasterketariak animetan. Areatzako eleiz portaletik. AKKB antolatuta.

BEDIA

10:00etan, urtekerea Urkulu urtegiara.

IGORRE

22:00etan, zinea *Lucy* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Udalak antolatuta Jubiladuen Eguna. 12:30ean, mezea. 13:00etan, Durundi Barri Dantza Taldea. 14:15ean, bazkaria.

ZEANURI

07:30ean, martxearen urtekerea. 09:15ean, lasterketearen urtekerea. 15:00etatik 18:00etara tirolina. 19:00etan, erromeria Aiko taldeagaz.

22:00etan, Disk Breakers frontoian.

ZEBERIO

18:00etan, Kiki eta Koko pailazoak



Txontadaxonta ikuskizuna eskeiniko dabe Zeberioko Ermita Zaharrean.

URRI BIGARRENAK 19

ARTEA

09:30ean, Arteko BTT martxea. Plazatik.

BEDIA

Bizkaiko Bira 18. Edizioa. Ubide-Urkiola. Motxotegi (816 m.) Ganguren Mendi Taldeak antolatuta, udalaren laguntzaz.

IGORRE

08:00etan XXVII. Mugari Bira. Tomas Arandia. 17:00etan, umeentzako zinea *Campanilla: Hadak y piratas*. 19:30ean, zinea *Lucy* Lasarte Aretoan.

ZEANURI

12:00etan, Gorbeia Suzien Txikia. Umeen lasterketea.

ZEBERIO

19:00etan, zinea *De tu ventana a la mia* (zuz.: Paula Ortiz). Udaltxeko 2. solairuan.

URRI BIGARRENAK 22

AREATZA

19:30ean, *Baso Ahaztuak* pelikulearen emonaldia. Aurkezpena: Iker Yurrebaso. Areatzako Udal Aretoan. AKKB antolatuta.

IGORRE

19:30ean, Ekain Pujanaren berbaldia "Etxea Igorren". Lasarte Aretoan.

URRI BIGARRENAK 23

LEMOA

19:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, berbaldi teknikoa "Neguko mendi materiala".

Zirko ikuskizuna Lasarte Aretoan

Tiritirantes taldeak *Hankaz gora* zirko ikuskizuna eskeiniko dau hilaren 30ean Igorreko Lasarte Aretoan arrastiko 17:30ean. Zirkoa, malabareak eta sua (hau, kalean) erabilten dabez Tiritirantes taldekoak euren ikuskizuna osotuteko. Holan, zirko teknikak, antzerki mutua eta umorea erabiliz, hankaz gora dagoana, mundua bera ala geu ete garan ipinten dabe kolokan. Eduardo Gleanoren testuak be dagoz ikuskizun honetan.

Lau elementu naturalak -lurra, ura, sua eta airea- erakusten ditu *Hankaz gora* lanak beste modu baten eta munduaren beste ikuspegi bat emonaz.

IRAGARKI LABURRAK

**SALDU
MASAJEAK EMOTEKO OHATILA
SALGAI**

Masajeak emoteko ohatila saltzean dot, barri-barria, bitan bakarrik erabilitakoa. Tolesgarria, besapean eroatekoa. Prezioa 100 euro. 619 661 841.

AUTOA SALGAI

Daewoo Tacuma 5 atedun autoa salgai, 11 urte. 106.000 Km. Interesdunak 94 631 79 06 telefonora deitu (Iñigo).

VENDING MAKINEA SALGAI

4 urte dituan vending makinea salgai. 279 produktu sartzeko kapazitatea dauka. Interesatuak 645 725 252 edo 606 771 708 telefonora deitu.

**DANERIK
TRASTELEKU BILA**

Trasteleku bila nabil. Merkea, 30 euro inguru. Interesdunak deitu 656 742 768 (Bego) telefonora.

PISUA ALOKATZEN DA

Pisua alokairuan Lemoan. Logela bi, komun bi, sala handia, sukaldea, balkoia eta

garajea. Etxebizitza barria, zonalde olean kokatua. 656 771 662.

LANGILE BILA

Etxeko beharrak egiteko eta umeak jagoteko persona euskalduna behar da. Deitu 646 600 490 (Eider).

EROSI

TRIKITIXEA EROSIKO NEUKE

Trikitixa esku soinua erosi ke neuke. 653 716 691 (Jon Andoni) telefonora deitu.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Hankaz gora* antzezlanerako.

Saioa Larrea (Areatza)
Rafa Ugalde (Dima)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *El niño* filma ikusteko.

Olaia Pagazaurtundua (Igorre)
Josu Murgia (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 12


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Konturatu. 2.- Bokala. Ezen, ze.
Konsonantea. 3.- Aretoa. Edabe garbi.
4.- Amerizioa. Arau. 5.- Erromako
mitologian, hilen arima. Errusiako
mendebaleko ibaia. 6.- Agoa mutu.
Nori atzikia. 7.- Andrai dei egiteko
hotsa. Trebe. 8.- Bokala. Euskararen
Gaitasun Agiria. Bat erromatar.
9.- Pausu.

GOITIK BEHERA

1.- Aztertu. 2.- Oxigenoa. Amama.
Konsonantea. 3.- Arriskuan
laguntzea eskatzeko oihua. Persona
izenordaina. Erbioa. 4.- Narru. Ibi.
5.- Musika nota. Einsteinia.
6.- Konsonantea. Asko. Sufrea.
7.- Krisantemo.



Topau futbolagaz zerikusia daukien zazpi berba.



AKI MI KO

Aitziber



Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

begitu
arratia ubide zeberio

Orre
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 1.
48110 Igorre (Bizkaia) Telefono: 94 673 64 25

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igodo
94 631 52 26

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Telefono 649 86 95 36

Los Chopos
neurria egindako armairuak
Arde, Los Chopos, 33 (Nagar) Tel.: 94 430 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Balonak: A1, A, B77, B
Lehendakari Agirre 31
Telefono: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@vodafone.net

AKITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTRATUEN
ONDASUN HIGEEZINEN
ASIGURUTAN
Bilbo Arka, 3. Floor. 94 673 71 41 - Fax: 94 673 94 41 - 48140 IGORRE

AKESOLO, S.A.
GARRAIOK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefono: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

axular
kultur dibertso
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES
LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK
Iturriotz barrena 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igodo (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80
e-posta: unioakul@euskatel.net

IRUNE GURTUBAI

"Ausartu egin behar zara, hemen etxoten geldituten bazara ez dator inor"

Irune Gurtubaik 27 urte daukaz eta produktorea da. Elorri bizi izan da baina Igorren daukaz familia eta baserria. Orain tartekatu egiten ditu Edinburgo eta Arratia, hile pare bat han, beste bat hemen. Kamara aurean egotea ez jako gustetan, atzean gogor dabil beharrean ostera. Esku artean *Picadero* pelikuleagaz dabil momentu honetan. Casting-a egin eben Igorren, besteak beste pelikulea Arratian grabauko dalako. Denpora gitxian bizi dauzan esperientziak partekatu dauz BEGITUGAZ, Euskal Zinemagintzeari be errepaso txiki bat emonaz.

Irati Urien**Ze ikasketa egin dozu?**

Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi neban Eskoriatzako Mondragon Unibertsitatean. Behin amaituta Edinburgora joan nintzan zineko master bat ikasten. Urte betekoa zan. Ostean Dubaira joan nintzan biziten, eta produktora baten ibili nintzan beharrean. Gero barriro be Edinburgora joateko beka bat lortu neban, MFA bat egiteko. Doktoretza bat egitea lez da, beka lortuten dozu eta ez daukazu klaserik baina unibersidadera zoaz eta aukeratu dozunen inguruan egiten dozu behar, teoria barik praktika atzenez.

Produktorea zara. Zer egiten dau produktoreak?

Hasieran gidioa idazteko prozesuan zuzendariagaz eta gidoilari-

gaz lanean hasten zara, *feedback*-a. Irakurri egiten dozu eta zure eretxia modu objektibo baten emoten dozu gero eurak pentsatu eta aldaketak egiteko. Izan be, gidio bat idazten danean lehenengo zirriborroa idazten dozu baina gero aldaketak egiten dira eta atzenezan grabetan dozuna seigarren zirriborroa da. Asko aldatuten da. Behin gidioa eukita hurrengo pausuak pelikulea egiteko dirua lortutea, taldea lotutea, aktoreak... dana organizetea da. Lan pilo bat da. Behin grabauta dagoanean post-produkzioa hasten da, eta dana eginda dagoanean distribuzinora pasetan zara...

Zer dakargu *Picadero*?

Krisiari buruzko pelikula bat dala esan leiteke, baina bikote baten zentretan da, urtetan hasi barri dan pareja baten. Orduan gai

serio bat da baina bikote honen bitartez kontauta umore ikutu bat dauka. 27 eta 28 urte daukez. Mutila praktketan dago baina ez dau kobretan, bere denporan ikasi eban eta orain lantegi baten dabil beharrean baina ez deusie pagetan. Neska ostera bigarren mastera egiten dabil, Arte Ederrak ikasi eban, irakasle izateko mastera be egin eban baina ezin dau beharrik topau, orduan bigarren master bat egiten dabil. Biak euren gurasoak bizi dira. Egoereak euren erlazinoan zelan eragiten dauan ikusten da.

Bikoteak erlazino sexualak euki gura dauz baina ezin dabe, beti dago baten bat etxean, kotxerik be ez daukie... hori dala eta *Picadero* bat topetan dabiz, bakarrik egoteko momentu bat.

Aktore/aktorea ezagunik agertuko da?

Bai. Joseba Usabiaga, Goenkaleko "Tximista" da mutila. Eta Barbara Goenaga neska. Eurak dira protagonista nagusiak, bikotea.

Nozko pantailan?

Pare bat aste barru *teaser*-a grabauko dogu. *Teaser*-a trailerraren antzekoa da, baina laburragoa. Publiko egin zeinke eta jenteari erakutsi, zer datorren probetako. Baina inbersoreari erakusteko be izaten da, dirua ipinten dauan jenteari. Izan be dirua ipinten dabena-ri zer izango dan ikustea gustetan jakie. Pelikulea martian grabauko dogu. Pelikulea bera datorren udarako egongo da prest. Lehenengo festibaletara eta bilduten ahaleginduko gara, eta horren arabera datak zehaztuko dira.

Casting-a egin zenduen Igorren. Espero zenduen etorri zan jente kopurua?

Gitxiago agertuko zirala pentsau genduan. Kultur Etxeko langilea berandurarte euki genduan bertan, jente asko etorri zan.

Aukeratu dozue casting-ekoak?

Ez. Bat aukeratu dogu, urrietako

teaser horretan agertuko dalako baina hori atzenezan pelikulako ezena bat baino ez da, orduan horretarako persona bat bakarrik behar genduan. Martiarako gehiago beharko doguz. *Teaser*-a grabau ostean, zemendia inguruan, libretoago egongo garanez orduan hasiko gara estrak aukeratuten.

Sariren bat irabazitakoa zara Lekeition, ezta?

Bai. Orain dala urte pare bat laburmetraje bat egin genduan zuzendari honegaz, Igorreko Luzetu Barik lehiaketan be aurkeztu genduan. Lekeition, Lekeitioko Zine eta Bideo eta Bileran aurkeztu eta narratibako lan onena irabazi egin genduan *The Zealot* lanagaz. Behar hori Indiako festival baten egon zan, Ameriketako Los Angeleseko festival baten be finalistak izan ginan...

Ezagun da mundu honek zale-tasun dozun bjajetako aukerea emoten deusula...

Bai, hori egia da. Atzenezan apur bat libreago zara mobiduteko. Dubain urte bete egon nintzan, Saharara be joan nintzan, Irlandan praktikak egin nebazan... Urten egin behar dozu, hemen etxoten geldituten bazara ez dator inor.

Zelan ikusten dozu Euskal Zinemagintzea?

Euskal zinearen industria nahiko

txikerra da baina atzenezan Euskal Herria be ez da hain handia. Nik pentsetan dot polito dabilela. Aurten Zinemaldian egon naz eta sekzino danetan euskal pelikula bat egoala komentetan ibili ziran. Hori oso ondo dago. Torontoko Zinemaldian egon nintzan orain dala hile bat eta han ikusi neban lehenengoz *Loreak*-en posterra, Kanadaraino heldu ziran.

Loreak zinemaldiko sail ofizialean gutiz euskeraz dan lehenengo pelikulea da. Ikusi dozu? Holan bada, ze kritika egiten deusazu?

Ikusteko aukerea euki neban eta asko gustau jatan. Sano ondo egindako pelikulea dala uste dot, teknikoki maila altua dauka. Polita da ikusteko, bai planoak, bai irudiak, bai istorioa.

Nora gustauko litxakizu heldutea, non ikusten dozu zeure burura etorkizunean?

Pelikulak eginda bizi ahal izatea gustauko litxakit. Hortik irabaztea. **Zuzendari edo produktore bat?** Bete gustau izan jata zinea, pelikula asko ikusi dodaz. Orduan gatxa da aukeratutea.

Eta pelikula bat?

Beste horrenbeste. Halan da be asko gustau jatan *iOlvídate de mí!*, Kate Winslet eta Jim Carrey-ena. Denporeagaz asko olgetan dau.



www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00

ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
 Amorebieta-Lemoa bidea
 Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
 48330 Lemoa (Bizkaia)



KÄRCHER
Banatzaile ofiziala

















• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
• Garraio zerbitzua.